



## **2020ko EPE. HEZKUNTZAKO IKUSKARIEN KIDEGOA**

### **II. zatia**

2020ko ekainaren 2an, bi salaketa-idazki jaso dira Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan, Garaialde BHI n gertatutako gertakari batzuen harira. Hala adierazten da:

1. IEE DBHko 2. mailako ikaslea da, 14 urtekoa. Haren familia semea ikastetxetik 15 egunerako kanporatua izan dela kexatzen da, IEEren adin bereko eta ikasgela bereko AZU neska ikaslea jazartzeagatik; ukatu egiten du bere semea jazarlea denik eta ez du onartzen hura ikastetxetik kanporatzea.
2. AZUren familiak idazki bat aurkeztu du, eta, bertan, kexatzen da ikastetxeko hainbat mutil ikaslek bere alaba jazartzen dutela, asko sufritzen ari dela, baina ikastetxean ez dutela ezer egiten, eta jakin nahi duela jazarleekin zer neurri hartu diren.

Gaur, ekainaren 3an, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak aipatutako idazkiak helarazi dizkizu, eta eskatu dizu erreferentziako ikuskari gisa ikastetxean esku hartzeko. Lehen-lehenik, telefonoz jarri zara harremanetan ikastetxeko zuzendariarekin, eta hark honako hau jakinarazi dizu:

1. 2020ko maiatzaren 19an, jolas-garaian, AZU eta IEEren tutorea IEEk eta beste 3 ikaslek AZUri egindako eraso fisikoaren lekuko izan zela (bultzada eta irain sexista eta mingarri larriak).
2. Maiatzaren 20an, ikastetxeko zuzendariak bilera bat egin zuela AZU eta IEEren tutorearekin, eta hark gertatutakoaren berri eman ziola. Orduan, zuzendariak eskola-jazarpenaren protokoloa irekitzeko eskatu zion tutoreari, baina hark esan zion aspaldiko gatazka dela, ez dela jazarpen-kasu bat; bera dagoeneko esku hartzen ari dela bere gelako ikasle batzuen arteko gatazkan, eta ziur dagoela arazoa konpontzea lortuko duela.
3. Hurrengo egunetan, tutorearen eta taldeko irakasleen artean iritziak trukatu ziren, eta eskola-jazarpenaren protokoloan aurreikusitako jarduerak ez hasia erabaki zen.
4. Tutoreak emandako datuak jaso zituenean, maiatzaren 26an, ikastetxeko zuzendariak IEE kautelaz kanporatzea erabaki zuela.

Telefono bidezko elkarrizketa horretatik ondoriozta daiteke ez dagoela oraingo kasuari buruzko erregistro idatzirik, ezta IEEri buruzko oraingo hau baino lehenagoko beste kasuren baten erregistrorik ere.

Deskriba ezazu zeure esku-hartzea eta egin beharreko urratsak, aurrera eraman beharreko era bateko eta besteko jarduerak azalduz. Idatzi bat edo bat baino gehiago egitea egoki iritziko bazen, idatz ezazu idazkiaren edo idazkien simulazio bat, eta adierazi nori (nortzuei) zuzenduko zenio(e)keen.



Proba egiteko materiala:

- Boligrafoa (urdina ala beltza)
- Araudia: boletin ofizialetan edo administrazio publikoen webguneetan argitaraturikoa, paperean eta gehitutako oharrik gabea; azpimarratua egon daiteke.

Oharra: ez da bestelako materialik erabiltzea baimentzen, hala nola, gida edo protokoloak.